

Donostian, 2021eko maiatzaren 26an

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### PRESAZKO ZUZENEKO INTERPELAZIOA, SANTA KLARA UHARTEAN OBRA HONDAKINAK ERRETZEARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia Udal Taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik eta EH Bildu udal taldeko zinegotzi Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, Udalbatzaren Organo Araudiko 97. artikuluekin bat, PRESAZKO ZUZENEKO INTERPELAZIO hau aurkezten diogu Eneko Goia alkateari, Santa Klara uhartean obra hondakinak erretzea dela eta, OSOKO BILKURAN AZTERTZEKO.

### PRESA JUSTIFIKATZEA

Ugaltze garaian uharteko hegazti habiagileengan eragin dituen ondorioen larritasuna eta hondakinak kudeatzeko araudia ez dutela bete kontuan hartuta, uste dugu udal Gobernuak lehenbailehen erantzun behar duela, jakin dezagun zer neurri zuzentzaile hartu dituen natur ingurune hori egoki kudeatzeko.

### JUSTIFIKAZIOA

Joan den maiatzaren 20an ke beltzeko zutabe handi bat sortu zen uhartearen goialdean. Herritarren artean sortutako kezka aurrean, udal gobernuak hedabideei adierazi zien egurra eta uztondoak modu kontrolatuan erre zituztela. Hala ere, kearen koloreagatik, hainbat iturrik berresten dute Santa Klara uharteko itsasargiko eskultura lanak sortutako hondakinak, gomak, plastikoak eta zaborrak daudela.

---

Kontuan hartuta erreketak horrek, sortutako ketzak eta haren toxikotasunak ingurune naturalean eta, bereziki, ugalketa garaian uharteko hegaztien kolonian eragina izan dutela, artistak berak egindako esku hartzean duen helburuarekin talka egiten du, eta, beraz, ezinbestekoa da neurri zuzentzaileak hartzea.

Artistak berak dioenez, *Hondaleak* espazio bat, leku bat izateko asmoa du, zeinean esperientzia paregabea biziko den, eta, aldi berean, elkarriketa sortzeko eta itsasoak eta gure inguruko eta bizi garen ingurunea babesteko beharraz ohartuko garen.

Era berean, idazlanari dagokionez, Cristina Iglesiasek, bere hizkuntza eskultorikotik abiatuta, hiri barruko urruneko leku batean esku hartu eta hura aldatu du, kausa ekologikoak defendatzearen eta ingurumena kontserbatzearen ikur bihurturik.

Hala ere, ikusi dugu esku hartzeak berak sortutako hondakinak erretzen utziz gero, ingurune naturalari eta hegazti habiagileen koloniar eraso egin dietela, haien oso garrantzitsua den sasoi batean. Parkea Bizirik Kukulunbera taldeak salatu duenez, hegaztien kolonia habiagilea ugaltzen ari den bitartean nahita erre diren hondakinek ihesarazi egin diela, baina baia kumeak, alde egin ezinik, sortutako ke beltzaren ondorioz itotzea ere.

Hondakinak eremu publikoan nahiz lur pribatuetan erretzea arau hauste larria da, hiri hondakinak biltzeari buruzko ordenantzan jasoa; beraz, beharrezkoa da udal Gobernuak behar diren azalpenak ematea, gertaeren larritasuna eta horrek inguru naturalean eta hegaztien kolonian izan duen eragin kaltegarria direla eta.

Hori dela eta, hau aurkezten dugu

#### INTERPELAZIOA

1. Zer dela eta ez du bermatu udal Gobernuak Cristina Iglesiasen obrak sortutako hondakinak egokiro kudeatzea?
2. Zer dela motibo utzi die udal Gobernuak Hiri Hondakinak Biltzeari buruzko Udal Ordenantza urratzen, arau hauste larritzat hartzen baitu hondakinak eremu publiko zein pribatuetan erretzea?
3. Zer dela kausa erre dituzte hondakinak uhartean, Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuaren baimenik gabe?
4. Zer dela eta adierazi die udal Gobernuak hedabideei, herritarrengan sortutako alarmaren ondoren, egurra eta uztondokoak erre dituztela, eragindako keak agerian utzi zuelarik hondakinen artean plastikoak zeudela?
5. Nola bermatuko du udal Gobernuak *Hondalea* lanaren helburua betetzea, hau da, itsasoak eta natur ingurunea babesteko beharraz konturaztea, esku hartzeak berak sortzen dituen hondakinen kudeaketa arduragabearen bidez inguruneari eraso egiten badiote?

Haizea Garay Gallastegi,  
Elkarrekin Donostiako zinegotzia.

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga,  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.